



JON GOIKOETXEARI ONGIETORRIA, GAUR

2004an hasitako '7 kontinente, 7 gailur' proiektua amaitu berri du; Gazteluko Kultur Batzordeak omenaldia egingo dio 7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2010-03-05**

VIII. URTEA 1944. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ekitaldi ugari izango dira datozen egunetan Emakumeen Mundu Martxaren harira. E. EZBIZA

MOREZ MARGOTUTAKO EGUNAK IZANGO DIRA ONDORENGOAK

TOLOSA Astelehenean izango da Emakumearen Nazioarteko Eguna eta eskualdean ere eguna ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte 2-3



57 eta 76 urte arteko gizek osatzen dute Kupela Sagardozaile Taldea. HITZA

Sagardoa eta sagardotegia maite dutenen urteroko tradizioa

VILLABONA Duela hiru hamarkada sortu zuten hainbat herritarrek Kupela Sagardozaile Taldea 5

Aske utzi dituzte atxilotutako bi gazteak

IBARRA Ustez «Jarraren izarra» duten kartelak jartzeagatik atzeman zituen Ertzaintzak 7

Metal doinuak izango dira nagusi gaur, Bonberenean

TOLOSA Agoraphobia talde tolosarrak bere azken lana aurkeztuko du Elberethekin batera 7

Zuhaitz landaketa egingo dute bihar Lizardi plazan

TOLOSA Zuhaitz Eguna antolatu du Udalak eta ekitaldi ugari izango dira 6



saridunak



berabera
EMAKUMEEN MUNDU MARTXA

AKABA BERA BERA MAR ALICANTE

eskubalo partidarako
Bihar 19:00etan
Donostiako Bidebieta kiroldegian

Bernabe Azpiroz (Leitza)

sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin

LAGUN ARO GBC LUCENTUM ALICANTE

saskibalo partidarako
Martxoak 7 19:00ean Donostiako Ilunben

M^a Angeles Ezeiza (Tolosa)

sarrerak HITZAko gure egoitzan jaso



TXOKA hitza

Egutegian hurrenak, kolore morez zipriztindutako egunak izango dira

Gizartea »

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte eskualdeko herrietan; hilaren 11n iritsiko da Mundu Martxa eskualdera.

ESTI EZEIZA

Egutegietan ohikoa da gorritz marakatuta ikustea jai egunak, aldarrikapen egunak eta data esanguratsuak. Baina urte osoko 365 egunetatik, bada bat, morez margotu beharrekoa. Emakumearen Nazioarteko Eguna da hori. Martxoaren 8a, emakume nahiz gizon guztien egutegietan, kolore biziz agertu beharko lukeena.

Ehun urte pasatu dira martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen hasi ginela, Kopenhagen 1910. urtean Emakume Sozialisten Nazioarteko Biltzarrek horrela erabaki zuenetik. Emakumeen borroka aurretik badator ere, egun horren inguruan biltzen diren hitzaldiek, kanpainak eta borrokek mende bat bete dute. Orain, XXI. mendean sartuta gauden honetan, berdintasunean bizi garela pentsatzen dute askok eta askok, baina oraindik asko falta da benetako berdintasunera iristeko. Hori dela eta, martxoaren 8a aitazakiaz hartuz, ekimen eta aldarrikapen ugari gauzatzen dira morez margotutako zenbakiaren bultzatzen.

«2010 arrazoi martxan jarraitzeko»

Emakumeen Mundu Martxa hemendik egun gutxira helduko da eskualdera. 2000. urtean, «milaka arrazoi zituztelako» elkartu ziren estreinakoz eta hortik bost urterekin berriro. Aurtun, hasiera horretatik hamarkada bat igaro denean, Euskal Herriko Mugimendu Feminis-



Atzo arratsaldean Tolosako Zerkausian aurkeztu zituzten Emakumeen Mundu Martxarekin lotuta eskualden antolatu dituzten ekimenak. E. EZEIZA

tako kideek ekimen honekin bat egitea erabaki dute eta Martxari berriro ekitea.

Martxoaren 8an hasi eta 13a arte emakume bakoitzaren esperientziak batu eta «elkartasunean, askatasunean eta parekotasunean oinarritutako mundu berri bat» aldarrikatuko dute Euskal Herrian zehar. Iruinetik abiatuko da furgoneta eta herrialde guztietatik igaro ostenen berriro Nafarroako hiriburura itzuliko da bost egunen bueltan. Han nazio mailako mobilizazio bat egingo dute. Eskualdetik ere igaroko dira bitarte horretan, Tolosara hilaren 11n iritsiko da Mundu Martxara eta Leitzara egun bat beranduago, hilaren 12an.

Bidezkoa den eta bakean bizidun jendartea lortzeko, berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna oinarri dituen mundu bat izatea ezinbestekotzat jotzen dute mugimendu feministakoek. Halaber, Mundu Martxa, «dinamika demokratiko, ireki, plural eta feminista» bezala deskribatzen dute. Femi-

nismoaren balioak eta filosofia izango dira antolatutako ekintza eta lanen oinarri.

Lau aldarrikapen

Aurtun burutuko duten Mundu Martxan, lau izango dira aldarrikapen nagusiak. Alde batetik, «emakumeek jasaten duten prekaritateari aurre egiteko jarriko dira martxan, sexuaren araberako lan banaketan oinarritzen den eredu ekonomiko neoliberal eta patriarkala salatzeko». Baita, «emakumeen kontrako indarkeria gainditzeko eta beraien eskubideak aldarrikatzeko». Era berean, sexualitate askerako eskubidea eta gorputzaren gainean dituzten eskubide sexual eta erreproduktiboen gaineko eskaerak lutzatuko dituzte. Azkenik, «baliabide naturalen pribatizazioaren aurka» abiatuko dute martxa.

Era berean, Tolosako ekitaldietan, elikadura burujabetzaren alde egindako lana eta ekarpena nabarmenduko dituzte.

Udalaren Berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako konpromisoa

Politika » Tolosako Udalak asteartean egindako Ohiko Osoko Bilkuran adierazpen instituzional bat onartu zuen aho batez.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalbatzak pasa den asteartean egindako Ohiko Osoko Bilkuran, aho batez, konpromisoa hartu zuen.

«Berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako tokiko politikak sendotzeko, bereziki neska gazte eta nerabeei begira; euren partaidetza aktiboa sustatzu», argitu zuten.

Bilkuran, Onintza Lasa Berdintasun saileko zinegotziak azaldu zuenez, «nerabezaroan egindako ikerketek jokabide sexistak erakusten dituzte, bai eta nerabeen artean berdintasun urriko ohiko rolak daudela ere; era berean, eraso matxistek gora egin dutela edo horiek horrela identifikatzeko zailtasunak daudela ere erakusten dute».

Hain zuzen ere, hori egiaztatzen da azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako zenbait herrietan egindako ikerketetan. Ikerketan, gazteen partaidetza eta

protagonismoa izan da ardatz nagusia. Udalak onartutako adierazpen instituzionalak honela dio: «emakume eta gizonen eskubideak oso-osorik eta berdin-berdin bermatu behar dira, eta bizitzan hain garrantzitsua den garai hori landu behar da, gizon eta emakumeen arteko jarrera positibo eta berdintasunezkoak finkatzeko, betiere, emakumeek berdintasunean oinarritutagauza dezaten beraien herritartasuna».

Adierazpena, bereziki gazteei zuzendua dago. Izan ere, «emakume gazteen kasuan, zeintzuek etorkizun hurbilean oinarritutako protagonista izateko erronka bikoitza baitute, beraien aurrerarietate egindako lana aurrerapen eta bultzada handia da egiteko horretan. Dena dela, errealitate berri bati egin behar diote aurre; izan ere, desberdintasunaren adierazpenak, sarritan, zorrotzagoak dira, eta itxuraz berdintasunean oinarritutako errealitatea bizi dute».

Udalak duen erronkaz ere mintzatu zen Onintza Lasa, bere esanetan, «gazteen artean desberdintasuna eragiten duten erak identifikatu eta horien aurka egitea ahalbidetuko duten komunikazio-bideak ezartzeko» beraien lana baita, bai eta baliabideak euren esku uztea eta jabeakuntza ahalbidetzea ere.

elduain
taberna-jatetxea

Eguneko menuak
Astebezuaren menu bereziak
Plater konbinatuak
Ogiartekoak

Elduain hirigunea, 1
30493 ELDUAIN (Gipuzkoa)
Tel. 943 68 33 27

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Artea eta feminismoa hizketagai

KULTURA ■ Herenegun erakusketa inauguratu osten, atzo Aurrez aurre izeneko ekimeneko lehen mahai-ingurua izan zen. Jende ugari hurbildu zen Aranburu jauregi, artea eta feminismoaren inguruko hizketaldian parte hartzera. Arakis, Montehermosoko zuzendaria, eta Lourdes Mendez, Antropologian eta Artean katedraduna, izan ziren hizlariak. Ekitaldiekin jarraituz, gaur, Higa antzerki taldearen eskutik, *Ene poltsa handia eta biok* antzezlanak ikusteko aukera izango da 22:00etan, Aranburu jauregian. E. ZEIZA

» EKITALDIAK

Albiztur

■ Martxoak 12, ostirala.

21:00etan, afaria Tolosako Amets jatetxean. Ondoren Jone Gorostazu eta Olatz Etxeberriaren barriketa saioa.

Alegia

■ **Martxoak 6, ostirala.** 21:00etan emakumeen eguneko afaria izango da Kultur Etxean. Afaria eta gero dantzaldia egongo da leku berean. Afaria zerbitu morea ekartzea eskatu dute antolatzaileek.

■ Martxoak 8, astelehena.

19:00etan elkarretaratzea egingo dute herriko plazan.

Alkiza

■ **Martxoak 6, bihar.** Ostatun afaria egingo dute 21:00etan.

Aitzo

■ Martxoak 8, astelehena.

20:00etatik aurrera, Udaletxeko Ekintza Aretoaan ikus-entzuzeko bideo emanaldia. Gaia ondorengo izango da: Tolosaldeko Landa Eremuko Emakumeen ikus entzuzeko Diagnostikoa.

■ **Martxoak 11, osteguna.** Sexuari buruzko tailerra egingo da udaletxeko ekintza aretoa 19:30ean. *Bost zentzumenen indar erotikoa* izenburupean mintzatu da Nerea Sancho, psikologo eta sexologoa. Antolatzaileek aditzera eman dutenez hitzaldira joateko komeni da izena ematea aldez aurretik.

Amezketak

■ **Martxoak 8, astelehena.** Elkarretaratzea egingo dute Abaltzaketako bidegurutzean 19:30ean. Bestetik, Guraso elkarteak antolatuta eta herriko emakume guztiei zuzenduta, Zalvide sagardotegian afaria egingo dute 20:30ean. Plazan elkartuko dira 20:15ean batera joateko autoetan. Jubilatuek merienda antolatu dute Arkaizpe tabernan 17:30erako.

Anoeta

■ **Martxoak 5, gaur.** Buztina Jate-

txean afaria izango da 21:00etatik aurrera.

■ Martxoak 8, astelehena.

18:00etan hasita, udaletxeko areto nagusian, *Emakumeak, isilpeko urteak* proiektioa ikusteko aukera izango da.

Berastegi

■ **Martxoak 5, gaur.** Sendabelarren inguruko hitzaldia eskainiko du Arantxa Salegik 17:00etan. Ekitaldia eskolan izango da. Egun horretan bertan, 21:00etan afaria ospatuko dute Basurde elkarteak.

Berrobi

■ **Martxoak 6, bihar.** Iriarte jate-txean afaria egingo dute 21:00etan.

Elduain

■ Martxoak 8, astelehena.

20:30ean, afaria Kontzeju tabernan, sagardotegiko menuarekin. Izena udaletxean bertan eman daiteke.

Ikaztegieta

■ **Martxoak 6, bihar.** 14:00etan bazkaria izango da Begiristain sagardotegian.

■ Martxoak 8, astelehena.

19:00etan elkarretaratzea egingo dute udaletxe aurrean. Ondoren Herrigintza elkarteak, zine-foruma: *Las chicas del calendario*.

Irura

■ **Martxoak 5, gaur.** Kontzertu parte-hartzailea eta ondoren, afori-merienda gaztelekuontzat.

■ Martxoak 8, astelehena.

17:30ean, Haur txokoan, *Aurorita beti polita* ipuin kontalaria.

■ Martxoak 12, ostirala.

Loatzo musika eskolako saioa

■ Martxoak 12, ostirala.

18:00etan, Musika Eskolako areto nagusian.

■ Martxoak 13, larunbata.

Film emanaldia gaztelekuan. Bestetik, 20:30ean afaria eta ondoren dantzaldia Zaharren biltokian. Txartelak Zaharren biltokian bertan erosi daitezke osteguna bitartean, 15 euroren truke.

Larraul

■ Martxoak 12, ostirala.

Larraulgo ostatuan, 21:00etan afaria egingo dute. Datorren astelehena bitartean eman daiteke izena 943-69 39 30 telefono zenbakira deituta.

Leitza

■ Martxoak 5, gaur.

Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Kartaren banaketa herriko azokan eta Amazabal Institutuan.

■ Martxoak 6, bihar.

Gona gorontzak bideoa ikusgai izango da herriko tabernetan arratsaldean. 20:00etan Aurrera elkarteak bideo emanaldia eta kafe tertulia.

■ Martxoak 8, astelehena.

Elkarretaratzea egingo da 20:00etan Lopeneko biribilgunean. Amazabal Institutuan, berriz, 10:15ean *Gona gorontzak* bideo emanaldia izango da, eta ondoren, elkarretaratzea egingo dute.

■ Martxoak 12, ostirala.

18:30etan txokolatada plazan.

Egun guztian zehar eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatzen egongo dira plazan. Arratsaldean herriko haur eta gazte-
txoek murala margotzeko aukera izango dute. 20:30ean ailegatu da Mundu Martxa Leitzara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekbeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan egongo dira salgai 10 euroren truke hileren 10a bitartean. Gaur, kontzertuak egingo dira: Komo tu eta talde sorpresa.

■ Martxoak 12, ostirala.

18:30etan txokolatada plazan.

Egun guztian zehar eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatzen egongo dira plazan. Arratsaldean herriko haur eta gazte-
txoek murala margotzeko aukera izango dute. 20:30ean ailegatu da Mundu Martxa Leitzara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekbeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan egongo dira salgai 10 euroren truke hileren 10a bitartean. Gaur, kontzertuak egingo dira: Komo tu eta talde sorpresa.

■ Martxoak 12, ostirala.

18:30etan txokolatada plazan.

Egun guztian zehar eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatzen egongo dira plazan. Arratsaldean herriko haur eta gazte-
txoek murala margotzeko aukera izango dute. 20:30ean ailegatu da Mundu Martxa Leitzara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekbeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan egongo dira salgai 10 euroren truke hileren 10a bitartean. Gaur, kontzertuak egingo dira: Komo tu eta talde sorpresa.

■ Martxoak 12, ostirala.

18:30etan txokolatada plazan.

Egun guztian zehar eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatzen egongo dira plazan. Arratsaldean herriko haur eta gazte-
txoek murala margotzeko aukera izango dute. 20:30ean ailegatu da Mundu Martxa Leitzara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekbeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan egongo dira salgai 10 euroren truke hileren 10a bitartean. Gaur, kontzertuak egingo dira: Komo tu eta talde sorpresa.

■ Martxoak 12, ostirala.

18:30etan txokolatada plazan.

Egun guztian zehar eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatzen egongo dira plazan. Arratsaldean herriko haur eta gazte-
txoek murala margotzeko aukera izango dute. 20:30ean ailegatu da Mundu Martxa Leitzara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekbeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan egongo dira salgai 10 euroren truke hileren 10a bitartean. Gaur, kontzertuak egingo dira: Komo tu eta talde sorpresa.

■ Martxoak 12, ostirala.

18:30etan txokolatada plazan.

Egun guztian zehar eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatzen egongo dira plazan. Arratsaldean herriko haur eta gazte-
txoek murala margotzeko aukera izango dute. 20:30ean ailegatu da Mundu Martxa Leitzara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekbeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan egongo dira salgai 10 euroren truke hileren 10a bitartean. Gaur, kontzertuak egingo dira: Komo tu eta talde sorpresa.

■ Martxoak 12, ostirala.

18:30etan txokolatada plazan.

Egun guztian zehar eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatzen egongo dira plazan. Arratsaldean herriko haur eta gazte-
txoek murala margotzeko aukera izango dute. 20:30ean ailegatu da Mundu Martxa Leitzara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekbeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan egongo dira salgai 10 euroren truke hileren 10a bitartean. Gaur, kontzertuak egingo dira: Komo tu eta talde sorpresa.



■ Martxoak 12, ostirala.

18:30etan txokolatada plazan.

Egun guztian zehar eskualdeko aldarriak bilduko dituen murala pintatzen egongo dira plazan. Arratsaldean herriko haur eta gazte-
txoek murala margotzeko aukera izango dute. 20:30ean ailegatu da Mundu Martxa Leitzara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzariak, Jeiki Abesbatza eta bertsolariak izango dira. Honez gain, testigantza liburua osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinekin. Ondoren, Atekbeltzan afaria egingo dute. Sarrerak Torrean eta Gaztañagan egongo dira salgai 10 euroren truke hileren 10a bitartean. Gaur, kontzertuak egingo dira: Komo tu eta talde sorpresa.



Herri askotan afariak egingo dituzte martxoaren 8a ospatzeko. HITZA



Kolorez beteriko koadroak

Ibarra » Egun hauetan Benito Izagirre kultur etxeko erakusketa aretora gerturatzen denak bizia darien margolanak aurkituko ditu.

ERREDAKZIOA

Marce Tena margolaria zorionekoa da egun hauetan. Herrian bertan, Ibarra, bere ibilbidea biltzen duen erakusketa bisitatu daiteke eta.

Benito Izagirre kultur etxean

ikusi daitezke ibartarraren 17 koadro biziak. Kolorez beteriko lanak dira eta hil honetan zehar ikusi daitezke Benito Izagirre kultur etxeko ohiko ordutegian, hau da, 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 22:00etara.

Margolariak berak argitu duenez, hiru zatitan banatzen da erakusketa: «lehenengoa abstraktua da eta koloreak eta formak gailentzen dira; pinturarekin jolastu dut hemen. Bigarrenean fantasiako inguru bat osatuko dut, nahiko figuratiboa, sorgin-orratzen eta tximeleten hegalekin jolasean. Hegalak dira nagusi, margoaz inguratutik. Hirugarrena errealistagoa da, ninfa batzuk aurkeztu ditut».

Bizipenak eta sentimenduak transmititu nahi ditu

Tenak bizipenak eta sentimenduak transmititu nahi ditu bere lanen bitartez. «Atal abstraktua askatasuna eta jolasa da. Ez naiz arduratu gauzak zein lekutan jarri behar diren. Bigarren zatia, berriz, hegan egiteko da, lotzen gaituen horretatik askatzea, ordutegiak, estresa... Hirugarren zatiak fantasiako mundua ordezkatzeko du, mitologia eta hegalak asko gusta-

tzen zaizkit», argitu du Ibarra margolariak.

Askotariko teknikak

Teknikak ere ugariak dira; oleoa, akrilikoa, pastelak eta teknika mistoa. Tenak herrian bertan erakusketa jartzeak «lotsa» pixka bat ematen diola onartu du, baina bere margoak «umiltasunez» erakusten ditu eta pozik dago Kultur Etxean ere bere lanak erakutsialah dituelako.

Kupela Sagardozele Taldea duela hiru hamarkada sortu zen. Villabonako hainbat belaunaldi eta koadrila nahasturik aurkitzen dira taldean. Hori bai, denek sagardoa eta sagardotegia maite dute, nola gainera.

Txotx-ean 30 urtetik gora

IRREDAKZIOA

Duela 30 urte baino gehiago, 1979 inguru hartan, Gipuzkoako sagardotegiek ez zuten egungo osperik. Villabonako laguntalde bat ordea, asteazkenero elkartzen hasi zen txotx garaian sagardotegietara joateko asmoarekin. Gehienbat, Tolosaldekoetara eta Astigarraga-Hernanikoetara joaten ziren. Egun, tinko jarraitzen dute tradizio horrekin.

13 lagun inguruk osatzen dute Kupela Sagardozele Taldea

Urteko beste egun guztietan ez dira koadrila berean ibiltzen eta ez dira belaunaldi berekoak, 57-76 urte bitartekoak dira. Amankomunean ordea hainbat gustu dituzte: sagardo zaletasuna, sagardotegietako giroa eta horrenbeste urtetan zehar sortzen joan den laguntasuna. Duela hiru hamarkada hasitako ohitura hura, «erritual» bilakatu dute.

Taldean aldaketa gutxi egon dira, hori bai, iaz trafikoa istripuz hil zen Pablo Lasa ez dute ahazten. Bera izan zen taldearen sortzaileetakobat.

Egun ondorengoek osatzen dute Kupela: Joxe Nazabal, Manuel Azkue, Manolo Eizmendi, Joxe Luis Usabiaga, Felix Otegi, Jexux Iraola, Manu Usandizaga, Rufino Eizmendi, Juan Mari Goikoetxea, Cruz Zurutuza, Javier Aranzabe, Joxe Mari Eizmendi eta Luis Gonzalezek.

Noizbehinka gehiago ere izaten dira: «lagun edo senideren bat, taldekideren batek gonbidatu duen norbait... agertzen da txotx-era». Kupela Taldearekin sagardotegira joan nahi duenak, lehenago, talde-

ko kideren bati abisatu behar dio, «eta ondoren asteazkenean orduan azaldu jarrita dagoen lekura, Villabonako Eizmendi armategiaren eta Felix pelukeriaren inguruan».

Denboraldia urtariraren 3. astean zabalitzen dute Adunako Aburuza sagardotegian. Itxi ere leku berean egiten dute, apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran.

Otik 10era, zenbat puntu?

Villabonako Irrintzielkartean kafe garaia iristen zenean, «00:00etan beti», eztabaidarako garaia helitzen zen: «Iaz ez ginena sagardotegi honetan egon», «data hauetan

hona joan ginen», «ni ez nintzen bertan egon», «berritoki itzuli behar dugu sagardotegi honetara, sagardo ona dago», «niri ez zitzaidan horrenbeste gustatu»...

1988. urteko denboraldian, fitxa bat egitea pentsatu zuten: «data, sagardotegiaren izena eta bertan egon diren kideen izenak apuntatzen dira bertan. Ondoren, puntuazio orokorra. Otik 10era, kide bakoitzak puntuak ematen ditu». Kontutan hartu beharreko irizpideak ondorengoak dira: «Sagardoaren kalitatea, janaria, zerbitzua eta prezioa».

1995. urtetik aurrerako fitxa guztiak informatizaturik dituzte. «Horrela, azken 15 urteetako da-

tuak eskura dauzka taldeko kide bakoitzak».

Saria eta antzerkia

Sagardo denboraldi hasieran «ezustekoa» izaten da askotan, azken denboraldiko puntuazio onena nork lortu duen jakiterakoan. Duela hamarkada bat, taldeak irabazleari txapela eta euskal-makila ematea erabaki zuen. Zapiain Sagardotegiak bi denboralditan errenkan irabazi zuenean ordea, ohiturarekin ez jarraitzea erabaki zuten. Horrela, 2008an Rufino Akarregik irabazi zuen, iaz berriz Asteasuko Sarasola Sagardotegiak. Errepikapenik eman ez ze-

nez, ohiturari berrekitea erabaki dute.

Herenegun eman zioten txapela eta saria Anixeto Sarasolari. Baina euskal-makilaren lekuan, pieza metaliko bat eman zioten, kana baten neurriarekin. Alboan yardaren neurriko beste pieza bat zuen. Neurri kontuen inguruko «eztabaida interesgarri bat» eduki zuten Kupela Taldekoek denboraldi honen hasieran, hortik dator sari honen zergatia.

Txotx garaiak esanahi handia dauka Kupela Sagardozele Taldearentzat: «Usadioak mantentzeko eta elkarren arteko erlazioak gartzeko elkartzen gara lur honetan».



Anixeto Sarasolari antzerki emanaldia eskaini zioten Kupelako kideek. HITZA



Sarasola Sagardotegian herenegun egin zuten sari banaketa ekitaldia. HITZA

TXOTX

Rezola	Tel.: 943 556 637	Astigarraga
Ipirita baserria • Savito Zaharra www.rezolasagardotegia.com		
Oialume Zar	Tel.: 943 552 938	Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)		
Akelenea	Tel.: 943 333 333	Astigarraga
Oialume bidea 57 www.akelenea.com		
Gurutzeta	Tel.: 943 552 242	Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobatik) www.gurutzeta.com		
Lizeaga	Tel.: 943 468 290	Astigarraga
Gartziategi baserria, Martxene postakikua, 139		
Mina	Tel.: 943 555 220	Astigarraga
Txerrikieta postakikua		
Gartziategi	Tel.: 943 469 674	Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5,8km. www.gartziategi.com		
Elutxeta	Tel.: 943 556 981	Umieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria		
Larre Gain	Tel.: 943 555 846 - 616 287 867	Hernani
Larre-Gain baserria, Erelozu auzoa		
Otsua-enea	Tel.: 943 556 894	Hernani
Osiaga auzoa		
Iparragirre	Tel.: 943 550 328	Hernani
Osiaga auzoa, 10 www.iparragirre.com		
Urdaira	Tel.: 943 372 691	Agnaga-Urtebil
Urdaira baserria		
Arratzain	Tel.: 943 366 663	Arratzain zahar baserria Urdabil
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com		
Urbitearte	Tel.: 943 580 119	Atea
Ergoiena auzoa		
Ohiarte	Tel.: 943 501 013	Zerain
Ohiarte baserria		
Isastegi	Tel.: 943 652 964	Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com		
Begiristain	Tel.: 943 652 837	Itartegeta
Itarte baserria		
Zabala	Tel.: 943 690 774	Aduna
Garagarza baserria (Goberu auzoa) www.zabalapasa.com info@zabala.com		
Sarasola	Tel.: 943 690 283	Asteasu
Bebalera auzoa		
Ola	Tel.: 943 623 130	Irua
Mezka auzoa, 102		
Lindurrenborda	Tel.: 948 637 212	Lesaka
Nabaz auzoa, 8		

DIEZ Autobusak

Autobusak eta ibilgailuak zerbitzu berezia
Mota eta neurriak dituzte
Guztiz, 24 orduz, 7 egunz, 365 egunz...

Mundakaldea, 24 | Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 37 11 37 / 20112 DONOSTIA
Posta elektronikoa: malala@autocaresdiez.net

Udalak Lizardi plazan antolatu du biharko zuhaitz landaketa

Tolosa » Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek gymkana egingo dute bihar goizean Zabalzarreta parkean.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak Zuhaitz Eguna antolatu du biharko, hainbat ekin-tzekin. 12:00etan herritar guzti-entzabidatu zaie Lizardi plazan (Patinetako pista) udal zinegotzietan batera zuhaitz landaketan parte hartzera. Kolektorea egiteko Lizardi plazan egindako lanak amaitu dira eta plaza urbanizatuta dago. Bertan *Acer campestris* eta *Magnolia kobus*ak landatuko dira Tolosako zuhaitziaz handituz. Lizardi plazara joaten diren guztiak landare bat emango zaie.

Zabalzarreta parkean gymkana egingo dute. Bertan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek parte hartuko dute. Horrela, ikasleek beraien zentzumenekin esperimentatuko dute, hitzekin jolastu, txapak egin edo mimitikaren bidez berak bihurtu. Gymkana 12:00etan amaituko da 50 *Magnolia stellata* aldatuz Iurramendin.

Asteazken zehar hainbat ekin-tza egingo dira. Laskorain ikastolako LHko 4. mailako ikasleek 20 sagarondo landatuko dituzte Iurramendi inguruan. Horretaz gain, landare eta zuhaitzen fotosintesiarren prozesua landuko dute.

Bestalde, Tolosako Udalak herritarrek etxean baratzera edukitzeko aholku praktikoko batzuk jasotzen dituen orria banatu du. Aholku horiek in tolosarren terrazak eta balkoiak benetako baratzki eta landare aromatikoaren baratzak izan daitezke. Landareak nola aldatu eta ongarritu jakin daitezke eta zorroren kontra etxeko zein erremedio erabili daitezkeen ere bai.

Eskualdeko bost pilotari Euskal Herriko finaleran

Pilota » Aurrera-Saiaz, Erniope, Intxurre eta Aurrera elkarteko pilotariak ariko dira txapela lortzeko lehian.

IMANOL GARCIA

Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketaren finalak izango dira jokoan asteberu honetan. Eskualdeko Aurrera-Saiaz, Erniope, Intxurre eta Aurrera elkarteko zortzi pilotari ariko dira lehian, horietatik bost eskualdekoak.

Kadete mailan Intxurreko Iñaki Artola alegiarrak banaka jokatu du etzi, 11:00etan, Zumarragako frontoian Apeztegiaren aurka. Ondoren, kadete mailan binaka, Erniopeko Andoni Mujika tolosarrak eta Gaizka Iruretagoiena asteasuarrak Oiarpe elkartekoan aurka jokatu dute. Jubeniletan banaka, Aurrera-Saiazeko Ibai Arratibel ataundarrak Munitibarrenko frontoian jokatu du gaur, 19:30ean, Bergarako Rezustaren aurka. Jubeniletan binaka, Aurrera-Saiazeko Xabi Urbietak astea-

suarrak eta Txomin Zinkunegi donostiarrak Zornotzan ariko dira gaur, 19:00etan, Galdakaoko Elezkan eta Galartzen aurka. 22 urte azpikoen mailan, Aurrerako Jon Jaunarena leitzarrak bihar jokatu du Markinako Urionaren aurka, 11:00etan, Beotibarren. Nagusien mailan, Aurrera-Saiazeko Ion Ander Albisu ataundarrak Txokoako Etxeberriren aurka jokatu du, bihar, 17:30ean, Amurrioren.

Partida gogorrak

Iñaki Artolak «partida gogorra» espero du. Ligaxkan Apeztegiaren aurka jokatu zuen eta orduan 14ean utzi zuen. «Ni nire partida jokatzera joango naiz eta horrela bada, gauzak zailak jarriko dizkiot». Finalerako pilotak Federazioak jartzen ditu eta, beraz, ez du jakin gero frontoira joan arte nolakoak izango diren. Artolak finalera iristea ez zuen «asko espero», baina aukerak badituela ikusten du alegiarrak.

Andoni Mujikaren eta Gaizka Iruretagoienaren ustez, nahikoa errari bada finalera iristea. «Lehen

mailako kadeteak gara eta Euskal Herriko Txapelketarako sailkatzea asko zen guretzat», azaldu dute. «Finala jokatzera, oraindik gehiago. Presiorik gabe aterako gara». Hiru aldiz jokatu dute finalerako aurkariaren aurka eta denetan galdu dute. «Aurrelaria oso ona da eta saiaturko gara berak pilota gutxi jotzea. Finala irabaztea zaila izango da».

Xabier Urbietak dioenez, finala «nahiko zaila eta gogorra izango da. Bi aurkariak oso indartsuak dira eta pilota biziak erabiltzen dituzte». Egin duten Txapelketarekin «gustura» dagoela dio Urbietak. Partida guztiak irabazi dituzte eta «gehienetan ondo jokatu».

Jon Jaunarenak ligan izan duen «aurkari gogorrena» izango du Beotibarren jokatu duen finaleran. «Ligakoan Markinako jokatu genuen eta 22-16 irabazi nion», azaldu du leitzarrak. «Defentsa handia dauka eta sake-errematerak jokatzen du». Jaunarena partida bere kolpearekin dominatzen eta gero tantoa bukatzen saiaturko da: «Aurrean ez uzten saiaturko naiz, errematean ondo aritzen delako».



EHEk eredu euskalduna aldarrikatu du

TOLOSA » Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkarteak deituta hainbat lagunek elkarretaratzea egin zuten herenegun Triangulo plazan. 30 urte bete ditu EHEk eta hasieran bezala «irakaskuntza alorretik euskara desagertzeko dauden politikak» salatu zituzten, *Eredu bat eta euskalduna!* zioen pankartarekin. I.T.

K Kirol jarduerak

Gaur, ostirala

Areto futbol

- Usabalgo goiko kantxan, Gipuzkoako ligako 2. mailako partida, 20:45ean: Laskorain - Gure Txokoa.
- Usabalgo beheko kantxan, nesken taldea, 20:45ean: Laskorain - La Salle.

Pilota

- Beotibarren, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa, infantil mailan, 19:30ean, Beotibar 3-Zumaia 5. Ondoren, Gipuzkoako Udaberri Txapelketaren finalerdia, nagusien mailan, Beotibar 2-Donostia 1.

Bihar, larunbata

Areto futbol

- Usabalgo beheko kantxan, 10:00etan Eskola Kirola infantil neskek.
- Usabalgo goiko kantxan, Gipuzkoako 3. maila, 16:00etan.
- Usabalgo goiko kantxan, Nazional maila, 18:00etan: Laskorain-Goierri.

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantxan, infantil mutilen partida, 09:00etan.
- Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, infantil mutilak, infantil neskek eta kadete mutilak.
- Usabalgo goiko kantxan, kadete neskek, 12:00etan.

Eskubaloia

- Usabalgo beheko kantxan, infantil mailan, 12:00etan.

Pilota

- Beotibarren, Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketaren finalak, 11:30ean.
- Beotibarren, Emakumeen Gomaizko Paleta Kutxa Sari Nagusiko finalak, 18:00etan.

Mahai Tenisa

- 16:00etan, Usabal-Kraft Lasarte.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, kadete neskek f-11, 10:00etan.
- Usabalgo futbol zelaian, ohorezko kadeteak, 11:30ean.
- Usabalgo futbol zelaian, preferente mailan, 15:30ean: Tolosa C.F. - Sanpedrotarra.

Etzi, igandea

Eskubaloia

- Usabalgo beheko kantxan, 11:00etan, Gipuzkoako Selektzioa.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, alebin mailan, 10:00etan.
- Usabalgo futbol zelaian, ohorezko infantil mailan, 11:30ean.

H Hilberria

IGNACIO BEÑARAN TOLOSA

Atzo hil zen, 95 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bederikapena hartu ondoren.

Goian bego-

Alltona gure ondokik betiko joan zera, gure bilhotzean dago samina eta pena, guretzakak beti eman zenuen dena, mila esker alltona taizan atsedena.

Haren animaren alde etolitzat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIRETAN Villabonako JESUEN BIHOTZA parroki elizan egingo den hileta. Aldiz aurretik, mila esker.

Helbidea: Oriamendi, 1-1, ezker.

Oharra: Gorputz belia Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egongo da, gaur arratsaldeko 16:40ak arte.



VILLABONAN, 2010eko martxoaren 5ean

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

'Boli'ri ongietorria, gaur

Gaztelu » 20:30etik aurrera ongietorria, afaria eta Aconcaguako diapositiba emanaldia izango dira.



'Boli' Aconcaguako gailurrean. HITZA

ERREDAKZIOA

Jon Goikoetxea *Boli* gazteluarrak bukatu du azkenean orain sei urte hasitako proiektua, *7 kontinente, 7 gailur* izenekoa.

Azken urteetan Asiako, Ipar Ameriketako, Europako, Antartikako, Afrikako, Ozeaniako eta Hego Ameriketako gailurrik altuak igotzen aritu da mendizale gaztea, urtero gailur bat egin duenari 2004tik hona. Azkena, Hego Ameriketako Aconcagua izan da. Pasa den urtarrilaren 22an abiatu zen haruntz eta otsailaren 9an 11:00etan zapaldu zuen 6.962 metroko gailurra. Aconcagua Ande-

etako mendirik altuena da, Amerikako altuena eta Asiatik kanpo dagoen munduko mendirik altuena.

Jaia Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkartean

Egindakoa ez da nolana hiko eta ondorioz, herrian ongietorria ere prestatu diote. Gaur bertan izango da 20:30etik aurrera.

Lehenik eta behin ongietorria egingo diote, ondoren afaria egingo dute eta bukatzeko Aconcaguako diapositiba emanaldia izango dute Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkartean. Ongietorria Gazteluko Kultur Batzordeak prestatu diote, izan ere, herrian kontentua daude herrikideak egindakoarekin.

«Zorionez gazteluar honek gure herriko izena munduan zehar ohorez goraiatu eta zabaldu izana eskertu nahi diogu», argitu dute.

» GAILURRAK

- **Asia.** Everest.
- **Ipar Amerika.** Mckinley.
- **Europa.** Elbrus.
- **Antartika.** Vinson Massif.
- **Afrika.** Kilimanjaro.
- **Ozeania.** Carstensz Piramidea.
- **Hego Amerika.** Aconcagua.



Atxilotetak salatzen elkarretaratzea egin zuten plazan, atzo. A. IMAZ

Ertzaintzak aske utzi ditu atxilotutako bi gazteak

Ibarra » «Jarrairen izarra» duten kartelak jartzeagatik atzeman zituzten atzo goizean; «terrorismoaren goratzea» egotzen diete.

«Tolosako Ertzaintzaren egoitzan ginela berriz, zeldan, gerturatu eta *Cara al Sol* jarri digute hirutan, mobil bateko musika zirudien. Biluzteko ere esan digute, baina horretarako eskumenik ez dutela esan eta ez gara biluztu». Ertzaintzen aurrean deklaratu ziren ere uko egin zioten gazteek eta zitazioaren zain, epailearen aurretik pasa gabe, aske gelditu ziren.

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak atzo arratsaldean atzeman zituen Ibarra goizez atxilotutako bi gazteak. Herrian, iluntzean, batzar informatiboa eta elkarretaratzea burutu ziren G.J.M. eta J.M.O.ri «elkartasuna azzaltzeko eta errepresioa salatzen». 90 lagun inguru elkartu ziren.

11:00etan atxilotu zituzten Euskal Herria kalean, Kultur Etxearen atzealdearen inguruan. Ertzaintzak esandakoaren arabera, gazteak «Jarrairen izarrarekin sinaturik zeuden kartelak» jartzen ari zirela eta «terrorismoaren goratzea» egotzi diete. Gazteen esanetan eurrek ez zuten inongo kartelik gaine-

an: «Tolosako Ertzaintzaren egoitzan ginela berriz, zeldan, gerturatu eta *Cara al Sol* jarri digute hirutan, mobil bateko musika zirudien. Biluzteko ere esan digute, baina horretarako eskumenik ez dutela esan eta ez gara biluztu». Ertzaintzen aurrean deklaratu ziren ere uko egin zioten gazteek eta zitazioaren zain, epailearen aurretik pasa gabe, aske gelditu ziren.

Ertzaintzen inguruko orma batek eramandako kartelak Xebas Goikoetxearen eta Mikel Lopetegiren omenaldirako deialdia egin dute. Bertan izar bat ageri da, Che Guevara iraultzailearen txapela agertzen den bera. Xebas Goikoetxea 1977. urteko martxoaren 8an hil zuen Guardia Zibilak Ezkio-Itsason. Kontrol batean gelditu ostean tirokatua izan zen. Mikel Lopetegi tolosarra 1988ko martxoaren 2an hilda agertu zen Herriako espetxeko bere zeldan.

Metal doinuak Bonberenean

Tolosa » Tolosako Agoraphobiak diskoa aurkeztuko du gaur Legazpiko Elbereth taldearekin batera.

losa bertako Agoraphobia eta Legazpiko Elbereth taldeen eskutik. Tolosarrekin euren azken diskoa, *Reflexion*, izenekoa aurkeztuko dute. Bi taldeak heavy-thrash metala egiten dute.

Larunbatean Nafarroatik iritsitako doinuak

Larunbatean ere izango dira kontzertuak. 22:30etik aurrera Nafarroatik gerturatuko diren bi talde izango dira Bonberenean; Bizardunak eta Electric Riders.

Bizardunak taldekoek «folk

erradikala» aldarrikatu izan dute behin baino gehiagotan.

Folka egiten dute beraz, baina taldekide gehienak rockaren munduan mugitu izan dira, eta beraz hori ere atzematen da euren musikan.

Electric Riders taldekoak, aldiz, rocka eta psikodelia nahasten dituzte. Oso gutxi dira nahasketa hau egitera ausartzen diren taldeak eta emaitza Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldeko kostako 60. eta 70. hamarkadetakoa hard-rock doinuak dira.

ERREDAKZIOA

Bonberenean bere eskaintza zabalerekin jarraitzen du eta asteaburu honetan ere izango dira kontzertuak bertan.

Gaur 22:30etik aurrera, heavy metal doinuak nagusituko dira To-

tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

Atzeman erretatuko 7500€ artzotzako iragarkiak soilik argitaratuko dira.
RUCAPAK (ARTZOTZ) www.tolosakoHitza.iragaMakurak.com 943-625622 telefono zenbakia

HIGIEZINAK
ETXERDITZAK
SALDU

Zizarkil 100 gogotz eta argitzaurre salten ditut. Bista ederrak ditu eta baita 17x24-ko tenaxa. Sukaldia, koxina, egongela, 2 gelu eta estalioa ditu. Traxtearia ere badu (13x2) eskalaren bidez konexioak. Egonsa oso onean dago eta ingurua da. Cas naturalis ere badu. Merxi da ikusita. 685-64 94 97.

Lina
LAN ESKARIAN
PERTSONAK ZARRU

Vilabona. Hasirik edo helduak zardua eta etxeko lanak egiteko emakume eskaintzen da. Harremanetarako telefono zenbakia:

OSTIRARITZA.

Tolosa. Tolosaldean kamera bat behar dago ostiral eta larunbateran lan egiteko. Interesaturik dituzte 650-04 31 39 telefono zenbakia.

KANPOKOAK GUREAN
Lina
LAN ESKARIAN
GARBIKATZAK

Bilbo. Negozio biki eta ertainetarako kontrol-panelak web atari profesionalak egiten ditut

akter bekaunakiko teknikak ezabatuz. 3 urteko esperientziadun programatzaile-diseinatzaile gabe eta musikakidena nahi. Online denda, blogak, bideoak, katalogoak, direnu-antzek (panfletoak, menuak, papereko katalogoak...) egiten ditut. Nahi duzuna, nahi duzula egingo dut. Lan egiteko gogoz ditut, gertu eta serios nait. 650-3342 34 / askatunamant@komail.com

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
Semper, 7 (Jantzu komertziala) • BEASAIN
943-16 20 48
Buzi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

SEAT Audi VW
auto/ ARTIBAI / I.
SEAT - AUDI - VOLKSWAGEN

VOLKSWAGEN ID 2.0 GAMERNA
2017ko merkatako ibilgailua / 16.000 euro

SEAT LEON 2.0 TDI 148 ZALDI
2017ko merkatako ibilgailua / 13.000 euro

VOLKSWAGEN ID 2.0 GAMERNA
2017ko merkatako ibilgailua / 16.000 euro

AIKUN KARNETIK GAREKO ALTOA
- Etxe oso / 1.800 euro

NIROKOE KARNETIK GAREKO ALTOA
1.200 euro

Eduko azuzen z/a • Makina-Xemein
Tel.: 94-616 77 34 / Fax: 94-616 77 69

Salvide
SALVIDE
Higiezin zerbitzuak

Bihotz kalte 6 • 20900 Zarautz
Telef: 943-01 07 00 • Mug: 665- 71 85 96
www.lemosalvide.com

Aitzarrazabal. 3 logela etxebizitza, 10 metro leoadriko traxteluarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 peeta

Zarautz. Aduen Portun. Logela batiro etxebizitza traxteluarekin. Ingulak da Egonsa eta prezio onean. 45.000.000 peeta.

Zarautz. Erdigunean. 3 logela etxebizitza. Luzearen oinarri ingulak gabe. 10 metro leoadriko terrasa polikarekin. Oso prezio onean. 45.000.000 peeta.

Zarautz. Vista Alegren. 2 logela ditu. Terrasa handia. Eguzkitua. 49.500.000 peeta.

Zarautz. Erdigunean. 2 logela etxebizitza. Ingulak eta traxtelu biki batiro. Oso egonsa onean. 45.000.000 peeta.

Getaria. Herrikoia kalea. 3 logela eta 2 berogailuko etxebizitza. Traxteluarekin. Egonsa onean. 45.000.000 peeta.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinen *Internet kafe* emanaldia gaur Topic-en 20:30ean.

Antzerkia

■ **Tolosa.** Kandelen argipean taldeak *El oraculo del cuento* antzezlan eskainiko du bihar Triangulon 11:30etik 13:00etara, Ahozkotasunaren Jaialdian.

Zinema

■ **Tolosa.** *Un novio para Yasmina* filma Leidorren gaur eta bihar 22:30ean, Emakumeen Nazioarteko Egunaren zikloaren baitan.

Hitzaldia

■ **Alegia.** Autoestimua hitzaldiak gaur eta hilaren 12an 14:15etik 16:00etara eskolako patioan liburutegia. Bertan autoestimua eta auto kontzeptuaren osaketaren abiapuntuak ezagutzeko eta nortasunaren garapenean autoestimua eragina ulertzea eta abar izango dituzte hizpide.

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Pirritx, Porrotx eta Mari-mototsen *Irrien lagunak* emanaldia bihar Leidor aretoan 16:30ean eta 19:00etan.

Mendi irteera

■ **Alegia.** Izazpi mendira (Zumarra) irteera antolatu du Alegiako Mendi Asanbladak hilaren 14rako.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikoko arbola. 3. 943 65 10 45.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Hasi dira igerileku irekiak egiteko lanak

ASTEASU ■ Jada hasi dituzte Artzubi inguruan igerileku irekiak egiteko lanak. Eskolako obrarekin batera atera zuen Udalak lehiaketara eta 14 enpresa aurkeztu ziren. Proiektu osoaren aurrekontua 1.373.700 eurokoa da eta sei hilabetetan eraikiko dituzte igerileku irekiak, hau da, udaren bigarren zatirako bukatua egotea espero dute. Larrualgo errepidearen eta

Usarrabi erreken artean ari dira lanean, Artzubi inguruan. 285 metro karratuko igerileku handia eta 57 metro karratuko igerileku txikia izango ditu. Inguruan 2.000 metro karratuko zelaia izango du eta taberna, aldagelak, komunak, biltegia eta sorosleentzako gela izango dituen eraikina ere izango da bertan. E.MAIZ

A Agurrak



Zorionak Ugaitz!

Gaur 5 urte. Zorionak etxekoan partetik eta bereziki Maddiren partetik!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5. behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5. behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>